


auzo • auzo • auzo • auzo

herrera

Ikasteko aukera ederra

familia eta Gizarte-Hezkuntzarako zentruak hasi ditu aurtengo ikasturteko ikastaroak Bidebietako Moneda baserrian. 20 urtez funtzionamenduan ari den zentru honetako egitarau eta ikastaroei, emakumeei zuzendurikoak bereziki, arrakasta izugarria izaten jarraitzen dute. Aurten 370 emakume matrikulatu dira.

Bertako arduradunak, Txose Unzuetak dioenez, «eskaerak erantzuteko ere zailtasunak ditugu, baina egia esan, gutxitan geratzen da kalean benetako interesa



Moneda baserria, Bidebietako Serapio Mujika kaleko 10.ean dago.

duen norbait».

36 talde dituzte aurten eta 09.00etan hasi eta egun osoz ematen dira ikastaroak.

Denetarik irakasten da

baina Txosen esanetan batzuk oso arrakastatsuak izaten dira «yoga, gimnasia, alfabetizazioa, euskara, literatura, altzarien zaharberritzea edo

tapizgintza esaterako gainezka izaten dira beti». Tailerrak ere egiten dituzte eta kitarra eta sukaldaritza omen dira eskatuena.

Kultura bultzatzea eta ezagutaraztea izan ditu betidanik helburu nagusi Familia eta Gizarte-Hezkuntzarako zentruak eta hasiera batean zentruaren lan esparrua Bidebietara mugatzen bazen, orain Donostiara eta inguruko herrietara ere zabaldu da.

Informazio gehiagorako Moneda baserrira deitu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



1992ko ekainean San Luis plazan izandako uholdeak.

Konponduko al dira San Luis plazako

saneamendu arazoak?

IRUTXULOK jarraituko du gaia.

Egin zaitez harpidedun!

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Lanbidea:

Kodea:

Herria:

Jaiotze data:

Etxeko telefonoa:

Laneko telefonoa:

HARPIDETZA SARIA (urtekoa)

• Gukxieneko kuota: 2.000 pezeta • Kuota berezia: 5.000 pezeta • BAGERA KIDEen kuota: 1.000 pezeta • Borondatezko kuota: (zuk erabaki kopurua)

• Etxean jasotzen al duzu IRUTXULO? Bai Ez (Dagoeneko jasotzen baduzu) noren izenean:

Kontu korrontearen zenbakia:

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Kontu zenbakia

IRUTXULO, San Joan kalea 14, 20003, DONOSTIA • Tfnoa.: 42.68.07 • Faxes: 43.11.90

intxaurrondo

Txara-1, adinekoen etxe

Gazte asanbladak

Bianditzera ibilaldia antolatu du larunbaterako, hilaren 23rako. Goizeko 08.00etan irtengo dira Zubiaurre zubitik eta lineako autobusa hartuko dute. Norberak bere bazkaria eraman behar du eta autobusa ere norberaren kontura izango da. Gazte asanbladak gazte guztiak ibilaldi honetan parte hartzerantz animatzen ditu. Bestalde, gogoratu behar da baita ere, talde honek afari bat zozketatzen duela abenduan egingo den zozketan. Txartelak ohiko lekuetan izango dira salgai.



Txara 1 eraikin erraldoi eta modernoa da, zahar eta elbarrituentzat erabat egokitua.

Mus txapelketa berriro hasi dute Zulo-Zahar Elkartean. Ostiralero jokatu da gaueko 22.00etatik aurrera eta lortzen den dirua auzoko presoentzat izango da. Parte hartu nahi baduzu, hurbil zaitez elkartera edota 27 44 88 telefonora dei ezazu.

Mons polikiroldegiko lanak direla eta, Mons kalean arazoak sortu dira. Autoek kalearen eskuinaldean aparkatzen dutenez, autoan dabilentzat bide bakarra geratzen da libre eta horrek arazoak sortzen ditu, bi norabideetatik autoak doazenean. Bereziki, kontrako norabidetik datorrena autobusa denean.

Zarategi pasealekuaren amaieran eta Sagasti-Ederreko errotonda dagoen lekuan aspaldi hasi zituzten zaharren egoitza, apartotel modukoak, izango den eraikina egiteko lanak. Iazko azarorako amaitzea espero zen hasieran, baina denboraldi batez geldirik egon dira lanak eta joan den astean, datorren urtarrian zerbitzu batzuk zabalik izango dituela iragarri zuen Luis Mari Bandresek, Gizartekintzako diputatuak.

Hala ere, bere osotasunean, udaberrirako egongo da zabalik eraikin berri hau.

Txara-1 izena duen egoitza honek lau modulo izango ditu eta daukan ezintasun mailaren arabera banatuko da jendea bertan. 134 plaza izango ditu, 90 inguru hirugarren adineko jendearentzat eta gainerakoak elbarritu fisikoentzat.

Aisia eta harremanak

Egoitza honek zerbitzu ugari eskainiko dizkie bertako bezeroei. Batetik, zaharren osasun fisikoa eta psikikoa zainduko dituzte eta baita harreman sozialak ere. Bertako langileek, adinduen harremanak lantzeko ekin-

tzak prestatuko dituzte eta aisiaz gozatzeko parada ere izango dute, egoitzak eskainiko dituen zerbitzuekin. Honela, eguneroko ekintzak egiteko gai ez direnak lan txikiak egiteko aukera izango dute.

Hasiera batean egoitzan zinema, ileapaindegia eta antzeko zerbitzuak eskaintzea jasotzen bazen ere, badirudi oraingoz hauek ez direla egingo. Egoitzaren parean dagoen beste antzeko eraikina ere adinduentzat izango da, baina oraindik ez da jakiterik izan zehazki zein erabilera emango zaion. Eraikinaren eskeletoa baka-rik dago oraingoz egin.

Txikientzat lekuak

Zahar egoitza erraldoi hau martxan jartzeaz dela aipetuz, Intxaurdi auzo elkarteak haurrentzat egoitza eskatu die erakunde publikoiei, «apartotel berri honek adinduentzat bizilekua eskainiko badu ere, auzoko txikientzat egoitza baten premia handia dago auzoan. Haurtzaindegi baten falta somatzen da eta orain batez ere, auzoan bizi den jendea geroz eta gazteagoa baita».

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

ARGAZKIA: OIER LOSANTOS

JESUS M^a ARIZALA

MEDIKU DENTISTA, ESTOMATOLOGOA (TOULOUSEKO UNIBERTSITATEA)

ASEGURUAK: ASISA, PREVIASA, LAGUN ARO, DIPUTAZIOA, CAPISA, IPRESA, MEDIFIAT, HAURREN HOTZ PROGRAMA

Ferrerías plaza, 5 behegaina (Amara Berri ikastetxearen parean) • Tfnoa.: 45 90 45

EL TURISTA

KIROL ETA BIDAIETARAKO
ARTIKULUAK

LEGAZPI, 6 € Tfnoa.: 42 77 46